KARRANTZA HARANEKO UDALA
Bº Concha, 1 C.P. 48891 Karrantza (Bizkaia)

AYUNTAMIENTO VALLE DE KARRANTZA
Tfno: 946806012 www.karrantza.org

PLANTA PURINES: NOTA INFORMATIVA

Como es sabido, **la gestión de los purines** en el Valle es de gran complejidad. Si a las políticas impulsadas por las Instituciones desde hace décadas para fomentar la ganadería intensiva, le unimos la accidentada orografía, las condiciones climatológicas y el exceso de purín, nos encontramos con **un serio problema medio ambiental que nos ha conducido a una situación límite por contaminación de los acuíferos del municipio, excesos de purín en las parcelas, vertidos incontrolados, etc...**

Ante esta tesitura, y tras el intento fallido de la planta de purines de 2009, una empresa privada (Verdalia) ha apostado por relanzar este proyecto aprovechando la infraestructura que existía en Las Torcachas. **La planta, tras la recogida y el tratamiento adecuado del purín, obtendrá gas biometano (gas renovable).**

Es normal que un nuevo proyecto como éste, genere incertidumbre en el pueblo. Queremos informar sobre algunas cuestiones para evitar malentendidos, ya que se está trasladando información errónea, entendemos que por desconocimiento. Por ello queremos aclarar una serie de puntos:

1. **El Ayuntamiento no tiene competencia para denegar el permiso a la empresa.** A raíz de la aprobación de la "Ley Tapia" en 2021 (Ley de Ordenación del Territorio del País Vasco), queda exclusivamente en manos del Gobierno Vasco la potestad de autorizar este tipo de obras. El Ayuntamiento solo puede informar sobre el aspecto urbanístico del suelo, y éste, tiene la calificación necesaria desde el inicio del proyecto fallido de 2009. El Ayuntamiento no puede negarse a su ejecución.

2. La empresa presentó su proyecto a las entidades competentes: Gobierno Vasco, Ura, Diputación Foral, etc...y finalmente **es Gobierno Vasco quien emite la AUTORIZACIÓN MEDIOAMBIENTAL INTEGRADA. Este documento es clave en este proceso, ya que garantiza que la planta funcione en condiciones sin generar impactos relevantes a nivel medio ambiental.** El protocolo implica controles exhaustivos por parte de los técnicos de Gobierno Vasco, para asegurarse de que la empresa realiza un proceso acorde a la autorización concedida.

Y es en este punto donde el Ayuntamiento tiene que poner el foco: que se cumplan las condiciones impuestas por Gobierno Vasco que garantizarán un correcto funcionamiento de la planta.

3. Pese a que en la autorización concedida por Gobierno Vasco se permite el uso, en pequeña escala, de otros productos (en ningún caso lodos de depuradoras ni animales muertos), **la empresa ha planteado y diseñado la misma para funcionar con estiércol, purín y paja exclusivamente.**

4. El digestato resultante del proceso, tendrá (al igual que en el proyecto de 2009) una parte líquida (para fertirriego) y otra sólida (fertilizante). Ambas están sometidas a un riguroso control por parte de Gobierno Vasco, por lo que **cumpliendo lo establecido en la AUTORIZACIÓN, no tienen que suponer problema alguno de contaminación.**

5. **Ganaderos y condiciones. Aún existen incertidumbre sobre las condiciones que habrán de acordar los ganaderos con la empresa.** Pero objetivamente, un gestor autorizado de purines puede ser una solución si las condiciones pactadas son favorables para ambas partes.

6. **En relación al suministro de agua**, lógicamente, cuando se presenta un proyecto de este tipo en el Ayuntamiento, lo primero que hacemos es valorar el consumo estimado (una media de 12.000l diarios estando a pleno funcionamiento) con los técnicos municipales. Y este consumo **es perfectamente asumible sin perjudicar a la población**. De hecho, tanto el agua de suministro cuando la instalación funcione, como el agua para el llenado de uno de los tanques existentes actualmente para comprobar su estanqueidad, se realizará del bombeo de La Cadena, con lo cual no repercutirá en la balsa de La Cerroja, y se efectuará cuando no haya problemas de sequía. El resto de tanques se llenarán reutilizando ese agua. Incluso, y aprovechando las circunstancias, tenemos previsto realizar una serie de mejoras para los barrios de Las Torcachas y El Suceso.

Por tanto, consideramos lógica la preocupación ciudadana por los problemas que puedan generarse con la planta. Pero la forma de garantizar que no haya impacto medioambiental para nuestro Valle reside en el cumplimiento por parte de la empresa de las condiciones impuestas en la AUTORIZACIÓN MEDIOAMBIENTAL INTEGRADA, punto en el que como Ayuntamiento, junto a los responsables de Gobierno Vasco, centraremos toda nuestra atención. Si se respetan estas condiciones, la planta ayudará a resolver el problema de los purines.

Fdo Ayuntamiento de Karrantza (Julio de 2026)

KARRANTZA HARANEKO UDALA
Bº Concha, 1 C.P. 48891 Karrantza (Bizkaia)

AYUNTAMIENTO VALLE DE KARRANTZA
Tfno: 946806012 www.karrantza.org

MINDEN INSTALAZIOA: INFORMAZIO-OHARRA

Jakina denez, oso konplexua da Haranean mindak kudeatzea. Erakundeek duela hamarkada batzuetatik abeltzaintza intentsiboa sustatzeko bultzatutako politikei orografia traketsa, baldintza klimatologikoak eta gehiegizko minda gehitzen badizkiegu, **ingurumen arazo larria aurkituko dugu, eta, horren ondorioz, mugako egoera batan gaude, udalerriko akuiferoen kutsaduragatik, lursailetan minda gehiegi egoteagatik, kontrolik gabeko isurketengatik, etab.**

Egoera horren aurrean, eta 2009an minden instalazioa jartzeko egindako arrakastarik gabeko saiakeraren ondoren, enpresa pribatu batek (Verdalia) proiektu hori berrabiaraztearen aldeko apustua egin du. Horretarako, Las Torcachasen zegoen azpiegitura baliatuko du. **Instalazioak metanoa (gas berriztagarria) lortuko du, minda jaso eta behar bezala tratatu ondoren.**

Normala da horrelako proiektu batek ziurgabetasuna sortzea herrian. Zenbait gairen berri eman nahi dugu, gaizki-ulertuak saihesteko; izan ere, informazio okerra helarazten ari da, eta uste dugu ezjakituriaren ondorio dela. Hori dela eta, zenbait alderdi argitu nahi ditugu:

1. **Udalak ez du eskumenik enpresari baimena ukatzeko.** 2021ean "Tapia Legea" (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea) onartu zenetik, Eusko Jaurlaritzak baino ez du halako obrak baimentzeko ahala. Udalak lurzoruaren hirigintza alderdiari buruzko informazioa baino ezin du eman, eta lurzoru horrek beharrezkoa den kalifikazioa du 2009an huts egin zuen proiektuaren hasieratik. Beraz, Udalak ezin dio uko egin hura egikaritzeari.

2. Enpresak bere proiektua aurkeztu zien erakunde eskudunei: Eusko Jaurlaritzari, Urari, Foru Aldundiari eta abarri, eta, azkenik, **Eusko Jaurlaritzari dagokio INGURUMEN-BAIMEN INTEGRATUA** ematea. **Dokumentu hori funtsezkoa da prozesu honetan, bermatu egiten baitu instalazioak behar bezala funtzionatuko duela, ingurumenean inpaktu garrantzitsurik eragin gabe.** Protokoloaren arabera, kontrol zehatzak egin behar dituzte Eusko Jaurlaritzako teknikariek, bermatzeko enpresak emandako baimenaren araberako gauzatzen duela prozesua.

Eta puntu horretan, hain zuzen ere, jarri behar du arreta Udalak: Eusko Jaurlaritzak ezarritako baldintzak betetzen direla; izan ere, baldintza horiek bermatuko dute instalazioak behar bezala funtzionatzen duela.

3. Nahiz eta Eusko Jaurlaritzak emandako baimenak ahalbidetu egiten duen beste produktu batzuk maila txikiagoan erabiltzea (inola ere ez arazketako lohiak edo animalia hilak), **enpresak instalazioa planteatu eta diseinatu du soilik simaurrarekin, mindekin eta lastoarekin funtziona dezan**.

4. Prozesuaren ondoriozko digestatoak zati likido bat (ongarrietarako) eta zati solido bat (ongarrietarako) izango ditu (2009ko proiektuan bezala). Eusko Jaurlaritzak zorrotz kontrolatzen ditu bi zatiak; beraz, **BAIMENEAN ezarritakoa betez gero, ez dute zertan kutsadura-arazorik eragin**.

5. **Abeltzainak eta baldintzak. Oraindik ziurgabetasuna dago abeltzainek enpresarekin adostu beharko dituzten baldintzei buruz.** Baina, objektiboki, mindak kudeatzeko kudeatzaile baimendu bat irtenbidea izan daiteke, hitzartutako baldintzak bi aldeentzat mesedegarriak badira.

6. **Uraren hornidurari dagokionez,** logikoa denez, Udalean horrelako proiektu bat aurkezten denean, lehenik eta behin zenbatetsitako kontsumoa (batez beste 12.000 l egunko, bete-betean funtzionatzen ari denean) baloratzen dugu udal teknikariekin . Eta kontsumo hori **erabat onargarria herritarrak kaltetu gabe.** Izan ere, bai hornidura-ura instalazioak funtzionatzen duen bitartean, bai gaur egungo deposituetako bat betetzeko ura estankotasuna egiaztatzeko, La Cadena ponpaketatik aterako da; beraz, ez du eraginik izango La Cerrojako putzuan, eta lehorte-arazorik ez dagoenean egingo da. Gainerako tankeak ur hori berrerabiliz beteko dira. Are gehiago, eta egoera aprobetxatuz, aurreikusi dugu zenbait hobekuntza berrerabiltzea Las Torcachas eta El Suceso auzoetarako.

Hortaz, uste dugu logikoa dela herritarrek kezka izatea instalazioak eragin ditzakeen arazoen inguruan. Baina, gure Haranean ingurumen-inpakturik ez egotea bermatzeko modu bakarra da enpresak osorik betetzea INGURUMEN-BAIMEN INTEGRATUAn ezarritako baldintzak, eta hain zuzen ere, puntu horretan jarriko dute arreta guztia Udalak eta Eusko Jaurlaritzako arduradunek. Baldintza horiek errespetatzen badira, instalazioak minden arazoa konpontzen lagunduko du.

Sin.: Karrantzako Udala (2026ko uztaila)